

UNITATE DIDAKTIKOEN JUSTIFIKAZIOA

Unitate didaktiko hauek planteatzeko zergatiak hauek dira:

- Gorputz Hezkuntzan, beste arloetan baztertuta dauden edo oso noizbehinka lantzen diren ikaskuntza-irakaskuntza ekintza ugari garatzen dira. Ekintza hauek duten hezkuntza potentzial fisikoa eta psikikoa ahaztu gabe.
- Proposatutako ekintzek sexu ezberdintasunaren ondorioz gerta daitezken edozein diskriminazio ekiditzen laguntzen dute, gizartean egun indarrean dauden estereotipoen kontra. Estereotipo hauek neskekin elkartzen dituzte espresio eta erritmo mugimenduak, eta indar, agresibitate eta konpetibitate elementuak, berriz mutilekin.
- Agian beste arloekin zerikusi haundiagoa daukatelakoan, Gorputz Hezkuntzan askotan baztertuta edo noizbehinka landutako herri dantzak garatzen ditugu, hauek duten hezkuntza potentzial fisiko eta motorea kontuan harturik.
- Taldearen antolaketa era ezberdinak eskaintzen dizkigute; honek norberaren eta taldekide guztien parte hartzea errezten du eta era berean elkar onartzea.
- Beharrezkoa den materiala errez lortzen da; ekintza askotan etxetik ekarritako materiala erabil daiteke.

LANDUTAKO HELBURU OROKORRAK

Nahiz eta lotura eduki arloko zortzi helburuekin bereziki ondorengo lau hauetan oinarritu gara unitate hau garatzeko orduan.

1. Norberaren gorputzaren hautemate- eta mugimen-aukerak aztertzea eta gauzatzea, nor bere buruan arreta jartzeko eta konfiantza hartzeko; horrela, norbera ongi sentitzea onuragarria izango da osasunerako.

5. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-baliabideak estetikoki eta sormenez erabiliz, gauzak aurkitzea eta adieraztea; horrela, norberaren mugimenduen bidez, horiek sentitu, bizi, onartu eta pertsonalizatu egingo dira.

7. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoak eta fisiko nahiz kirolekoak duten gizarte- eta kultura-kutsua aintzat hartzea, euskal kulturaren eta beste kultura batzuen balioak errespetatzeko eta balioesteko; horretarako, herri-jolasak eta -adierazpenak eta jolas eta adierazpen tradizionalak egingo dira.

8. Jarduera fisikoen aniztasuna, jolas motak, tradizio ludikoak, kirol-jarduerak eta dantzak ezagutzea eta gizarteko eta kulturako hainbat irizpide kontuan hartuta balioestea, euskal kulturaren balioak aintzat hartzeko.

LANDUTAKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

2. Ikasten ikasteko gaitasuna.

Proposatzen diren ekintzekin, gehienbat globalak, bere buruak dituen aukerak eta gabeziak ezagutu ditzake...

4. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Egiten diren ekintza gehienetan hitzaz aparte gorputza ere erabiltzen da komunikatzeko bai sentimenduak, ideiak, egoera ezberdinak...

6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Ekintza asko taldeka izateak errespetua lankidetzaren harremanak eta abar lantzeko aukera ematen du...

7. Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.

Zazpi jauzi eta beste dantza batzuk (Afrikarra, Vlasky...) lantzeko momentuan...

8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Gorputzekin adierazi behar den bezalakoak bere sentimendu, ideiak eta abar autonomoki adierazi behar du.

HELBURU DIDAKTIKOAK

Ikaslearen desinhibizioa garatzea.

Norberak bere burua (psikiko eta fisiko mugak) ezagutzea.

Ahozko komunikazioa ez dena erabiltzea (sentimenduak, ideiak, sentsazioak...).

Musika desberdinen erritmoa jarraitu, ezagutu eta gozatzea.

Sormena landu eta garatzea.

Lankidetzaz, errespetu hezkidetzaz eta abar bezalako jarrerak lantzea.

Autonomia garatzea.

Harremanak lantzea.

Euskal kulturaren baloreak aintzat hartzea.

EDUKIAK

- Gorputza eta mugimendua adierazpen- eta komunikazio-tresna.
- Mugimenduaren espazio- eta denbora-egituren araberako egokitzapena eta Euskal kulturako nahiz beste kultura batzuetako dantza eta koreografia errazak.
- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduen bidezko emozio eta sentimenduen adierazpena.
- Pertsonaia erreal eta fikziozko nahiz horiek antzezteko testuinguruen sormena. Objektuen eta materialen nahiz horiek adierazpenean dituzten aukeren erabilpena. Norberaren gorputzaren bidezko adierazpen eta komunikazioaren gozamina.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan partehartzea. Adierazpen moduan dauden desberdintasunen balioespena.








- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoaren ikerketa eta horren kontzientziazioa.







EBALUAZIO IRIZPIDEAK (2. ZIKLOA)






- 1.1. Euskal kulturako dantza errazak dantzatzeko gai da.
- 1.2. Gorputz atalak erabiliz erritmoak sortzeko, erreproduzitzeko eta errepikatzekeo gai da.
- 1.3. Musika modu naturalean jarraitzen du.
- 1.4. Gorputza erabiliz emozioak eta sentimenduak adierazten ditu.
- 1.5. Egoerak errepresentatzeko gorputzaren adierazpen baliabideak erabiltzen ditu.
- 1.6. Ikaskideekin, lankidetzan (kooperazioan) jarduten da.
- 1.7. Benetako edo asmatutako istorio laburrak antzezteko gai da.
- 1.8. Egindako jolasetan guztiz inplikatzeko da.
- 1.9. Prest agertzen da jarduerak burutzeko.


EBALUATZEKO TRESNAK (BEHAKETA FITXA)

SAIO ZENBAKIA																				
IKASLEAK																				
ERRITMOA																				
DANTZA																				
SORMENA																				
DESHINIBIZIOA																				
JARRERA																				
OHARRAK:																				







<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinibizioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 7, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	1. saioa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Ispilua”: Bikoteka bata bestearen atzetik, atzekoak aurrekoak egiten dituen mugimendu berdinak egin eta distantzia berdina mantendu (musikarekin lagundu).</p> <p>“Animalien harrapaketa”: Norbaiten izena eta animalia bat esan, talde osoa animalia hori bihurtuko da eta izena harrapatzailea izango da. Señalea ematerakoan “haur guztiak” ume bihurtuko dira.</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>Musikaren erritmoa jarraituz borobilean mugitu. Bi borobil bata bestearen barruan eta bakoitza norantza baten. Musika gelditzean aurrean duzunarekin ispiluaren jolasa egin, berriz ere musika hasi arte.</p> <p>Musika dagoenean “parekoarekin dantza egin”. Musika geratzerakoan beste bikote bat hartu eta musika hasten denean dantzan hasi.</p> <p>“Dantza eroa”: Abesti bat dantzatu pauso guztiekin. Gero abestiak mozketa batzuk ditu eta pauso hauek egiten jarraitu behar dute.</p> <p>“Letren eta figuren koreografia”: 6-7 ko taldeak egin eta bakoitzak 4, 5 letra (A, U, T, Y) aedo figurak (laukiak, borobilak, hirukiak...) pentsatuko dituzte. Hauekin, segida bat egin eta musikaren laguntzarekin, koreografiatxo bat egin, pentsatutako figura hoiak errespetatuz.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>Bikoteka “eskuen jolasa”: Txakur bat erosi dut.</p> <p>DUTXA</p>	<p>2. zikloa</p> <p>t</p>       





<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinibizioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	2. saioa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Uztaien jolasa”: Uztaien jolas normala baina bikoteka eta arau desberdin batzuk beteaz. Adib. Burua eta belarria. Orduan uztai bakoitzean bikote bat sartuko da, beraien artean bi gorputz atal hoiak elkartuko dituzte. Kanpoan geratzen danak puntu txar bat lortzen du.</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>“Eskultoreak”: Hasieran hiru naka eta ondoren 7 naka (beti talde inpareak). Batek postura bat hartu eta bigarrenak hirugarrenari, begiak itxita, postura berdina jartzen saiatuko da. Ondoren 3 jarriko dira figura bat eginez eta begiak itxita dituenak ikutuaz-ikutuaz beste hirurekin berdina ipintzen saiatuko da.</p> <p>“Antzeztu playbakean”: Bikoteka. Zerbait antzeztu beharko dute (adib. Produkto bat saldu) baina batek gorputzarekin antzeztu duen bitartean, besteak ahozkoa egingo du. Aurrez ezer gutxi adostu gabe.</p> <p>“korapiloa”: Talde txikiak osatuta (6, 7) eskutik helduta soka bat egin eta korapilotu, batek (kanpoan dagoenak) askatu beharko ditu.</p> <p>“Hitzen jolasa”: Borobilean eserita, txandaka bakoitzak txartela zorrotik atera eta dagokiona antzeztu. Asmatzeko txandaka galdetuko dugu, eta asmatzen duenari puntu bat eman.</p> <p>Ireki (lata, telegrama, botila, atea, aterkia, leihoa...).</p> <p>Moztu (urdaiazpikoa, zuhaitza, ilea, azkazalak, belarra...).</p> <p>Hartu (sugegorria, tximeleta, eulia, sugandila...).</p> <p>Garbitu /kotxea, lehia, zapata, betaurrekoak, azkazalak...).</p> <p>Begiratu (beste baten sorbalda gainetik, hondartzan haize haundiarekinegunkaria, telebista...).</p> <p>Edan (iturritik, botika garratza, lastotxoak...).</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>“Puxika”: Bikoteka, bat globoa izango da eta besteak poliki-poliki puztu egingo du eta behin puztuta askatu eta airea ateratzen dan heinean lurrera erortzen hasiko da.</p> <p>DUTXA</p>	<p>2. zikloa</p> <p>t</p>      


<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinibizioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	3. saioa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Dantza mugatua”: Denok barruan, aurrez finkatutako espazio batean oinez, korrika edo dantzan aritu musika dagoen bitartean, hau gelditzen denean beraiek ere geratu egingo direlarik.</p> <p>“Dragoiaren buztana”: denak gerritik ebatuta aurrekoak atzekoa harrapatu behar du.</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>“Egunon errege jauna”: talde txikia bat bertako bat erregea izango da. Besteak erregearengana hurbildu eta hau agurtuko dute. Erregeak; nondik datozen galdetuko die. Besteek erantzun. Erregeak berriz, zein den beraien lanbidea galdetu eta hauek bere lanbidea antzetzuko dute. Erregeak norbaitena asmatu eta hauetariko bat harrapatzen ahaleginduko da. Norbait harrapatuz gero berau errege.</p> <p>Zazpi jauzi: Musika entzun eta bakoitzari ateratzen zaiona egin.</p> <p>Dantzaren nondik norakoa adierazi eta lehen urratsak ikasi.</p> <p>“ZAZPI JAUZIAK”:Iparralde eta Nafarroan egiten den dantza dugu. Tradizionalki gizonen dantza badugu ere gaur egun emakumeek ere dantzaten dute.</p> <p>Dantza hau korruan egiten da behin eta berriz errepikatzen dira pausoak eta jauziak zazpi rarte.</p> <p>Eskuma ezkerre buelta bat bi, Ezkerre eskuma buelta bat bi</p> <p>Lau aldiz errepikatu.</p> <p>1,2,3,4, kanpora eta 1,2,3,4 barrura .</p> <p>eskuma ezkerre 2 aldiz bat bi eta salto.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>“Masaje eroa”: Pirritx eta Porrotxen abestia jarraituz masajeak eman.</p> <p>DUTXA</p>	<p>2. zikloa</p> <p>t</p>     


<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinezioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	4. saioa
	2. zikloa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Estatuak”: Estatuak sortu pertsonekin.</p> <p>Estatua bat bi ikaslekin. Estatua bat hiru ikaslekin. Estatua bat 8 ikaslekin.</p> <p>“Besarkatu eta lurretik birak eman”: musika dagoela bakoitza bere kontura eta musika gelditzen denean binaka besarkatu eta lurrean etzanda birak ematen hasi.</p> <p>Aldaera: besarkatu eta zutik birak eman.</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>Gorputza erabiliz “kotxe bat antzeztuko” dute. Horretarako bi talde egingo dituzte eta gaia beraien artean landu kotxea mugimenduari eta soinuz ezberdinekin antzeztuko dute.</p> <p>“Zazpi jauzi”: Bigarren zatia.</p> <p>Eskuma ezkerrean buelta bat bi, Ezkerrean buelta bat bi</p> <p>Lau aldiz errepikatu.</p> <p>1,2,3,4, kanpora eta 1,2,3,4 barrura .</p> <p>eskuma ezkerrean 2 aldiz bat bi eta salto.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>“Hipnotizatzailea”: Ikasle bat hipnotizatzailea, besteak lurrean etzanda egongo dira eta ikasle horrek esaten dituen mugimenduak egin beharko dituzte (mugimendu guztiak lasaiak izango dira).</p> <p>DUTXA</p>	<p>t</p> 

<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinezioa, musikarekin jolatu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	5. saioa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Zonbiak”: Zonbiaren lana haur guztiak harrapatzea izango da, harrapatutakoak zonbi bihurtuko dira. Horrela denak harrapatuta egon arte.</p> <p>Zonbia, txilibituaren soinuarekin mugituko da, txistukada bakoitzean pauso bat emanez. Haurrak aldiz panderoaren soinuarekin mugituko dira, kolpe bakoitzean pauso bat emanez.</p> <p>“Dordoka erraldoia”: Koltxoneta azpian lau ikasle lau hankatan eta espazioan zehar daudela erbiak harrapatzera. Erbiak jauzika joango dira.</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>“Ehun-zangoa”: irakasleak erakusten duen kolorearen arabera mugitu (berdea) eta geratu (gorria). Aldaera ezberdinak egin daitzezke.</p> <p>“Gezurria”: imitatu alderantziz Hotza dagoenean kontrakoa antzeztu beroa.</p> <p>“Zazpi jauzi”: Zazpi jauziarekin bukatu. Eskuma ezkerrean buelta bat bi, Ezkerrean eskuma buelta bat bi</p> <p>Lau aldiz errepikatu.</p> <p>1,2,3,4, kanpora eta 1,2,3,4 barrura .</p> <p>eskuma ezkerrean 2 aldiz bat bi eta salto.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>“Masaje goxoa”. Bikoteka, batak bestearen gainean pizza bat egin.</p> <p>Masa egin. Lisatu. Gazta bota, txanpiak, labara sartu eta jan. Ondoren rola aldatu.</p> <p>DUTXA</p>	<p>2. zikloa</p> <p>t</p>      

<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinezioa, musikarekin jolatu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	6. saioa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Puzker pozoitsua” la mancha: Jokoan harrapatzen ikasle bat geratzen da. Ikasle honek beste norbaiti ukitzen dion gorputz atalean esku bat ipintzen du eta harrapatzaile bihurtzen da beste bati ukitu arte. (Harrapatzaileak zapi identifikatzaile bat errotan du).</p> <p>Hankan ukitua izan bada, leku mugatuan olgatu.</p> <p>ALDAGAIA: Denek harrapatzaile bihurtu arte. Hau da, harrapatzailea ez da libratzen.</p> <p>“Scooby-doobydoo abestia”: Atal ezberdinak berotzeko (Euskal jolasen bilduma 10. abestia).</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>“Dantza Afrikanoa”:</p> <p>Musika entzuten duten bitartean nahi duten bezala mugitu, erritmoa eramaten saiatuz.</p> <p>Binaka jarri eta espazio mugatu batean, begiak ez talita duenak, dantzatu eta bikoteak begiratu eta zaindu txokatu ez dadin.</p> <p>Taldeka koreografia txiki bat egitea.</p> <p>Besteei erakutsi egin duten koreografia txikia.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>“Simonek dio”: Irakasleak aipatzen duenean "Simonek esaten du ukitu belarria, sudurra, etab." Ikasleak ukitu behar du. Txarto egiten duenak "astoa" hitzaren letra bat bereganatzen du.</p> <p>DUTXA</p>	<p>2. zikloa</p> <p>t</p>      

<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinibizioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	7. saioa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Txakurrak”: Txakurrak edo beste animali bat imitatu beharko dugu. Txakurrak direnak besteak harrapatzera juan behar dira jolasa guztiak harrapatuta dazenean bukatzen da.</p> <p>“Sorginak, printzeak eta igelak”: Sorginak harrapatzaileak izando dira. Harrapatutakoak igelak bihurtzen dira eta igelei imitatzen juango dira bitartean printzea musuak ematen igelak askatzen juango da.</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>“Dantza Afrikanoa” (Liberiakoa):</p> <p>Bi borobil bata bestearen barruan. Hasiko gara eskumaruntz, eskumako hanka mugituz eta burua afrikarren dantzen mugimendua imitatuz.</p> <p>Gero berdina ezkererutz, ezkerreko hanka mugitzen.</p> <p>Esku biak bururatz zuzendu eta gero aurreratz bota.</p> <p>Ahoaruntz zuzendu eta aurrerantz bota.</p> <p>Bihotzeruntz zuzendu eta aurrerutz bota.</p> <p>Azkenik, besoak ireki edo altxatu eskuak erakutsiz, eta gure sorbalda besarkatuz besoak ireki eta gurutzatu..</p> <p>Esanahia: ongietorria ematen dizut, nire ideiekin, nire ahoarekin, bihotzarekin, ez aurretik ez atzetik armak ez daramatzat.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>“Minutuaren jolasa”: Etzanda lurrean, minutu bat kalkulatu. Kalkulaten dutenean (mentalki) jaiki eta isilik egon.</p> <p>DUTXA</p>	<p>t</p>    

<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinibizioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	8. saioa
<p>BEROKETA:</p> <p>“Besarkatza”: Ikasle guztiak gimnasioan banatzen dira musikaren erritmoa eramaten, musika geratzen denean, beste ikasle batekin besarkatu behar dira. Hurrengokoan 3kin, gero laukin eta horrela gela guztia besarkatu arte.</p> <p>Aldaerak: besarkatuko dira frakak kolore berdinekoak dituztenak, ilea berdina, altura berdinekoak...</p> <p>“Zer egin dezakegu batera”: Ikasleak bikoteka jarriko dira eta batera egin daitezkeen gauzak egiten hasiko dira; bata saskibaloiko jokalaria eta bestea baloia, igeri...</p> <p>Gero beste bikote batekin topatuko dira eta berdina egingo dute, enborra moztu, kanoan joan...</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>“Robotak”: Ikasleak bikoteka jartzen dira, bata robota izango da, irakaslea joango da esaten zeintzuk diren pizteko eta itzaltzeko botoiak. Jolasean robota ez dena gorputzaren atalak ikutzen joango da robota pizteko eta martzan dagoenean itsaltzeko.</p> <p>“Ispiluko dantzak”: Bikoteka musikaren erritmoa jarraituko dute. Ikasle bat dantzaria izango da eta besteak bere mugimenduak edo dantza jarraitu beharko ditu. Txalo bat ematerakoan aldaketa egongo da. 3naka edo 4naka egin dezakegu edo dantza egin gorputzaren atal bat ikutuz, besoa, burua.... edo gorputzaren atal bat mugitu gabe, besoa, hanka...</p> <p>“Vlasky (dantza Serbiarra): Borobil bat egin eskutik ebatuta, eskumarutz hasiko gara, eskumako hanka zabalduz eta ezkerrekoa elkartuz (2 aldiz). Gero berdina ezkererutz. Ezkerra zabalduz eta eskuma elkartuz (2 aldiz). Holan 4 aldiz eta azkenik ezkumarutz bukatuz. Segida gero eta azkarrago egin beharko da. Proposatu dezakegu borobilaren erdian beste batzuk egotea bere kabuz dantza egiten.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>Bi ikasle begiak ez talita dituztelarik elkar topatu behar dute espazio mugatu batean. Komunikatzeko soinu ezberdinak erabili dezakete. Beste ikasle guztiak saiatuko dira erdian jartzen besoak erabili barik.</p> <p>DUTXA</p>	<p>2. zikloa</p> <p>t</p> 

<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinibizioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	<p>9. saioa</p>
<p>BEROKETA:</p> <p>“Burla”: Bikoteka bata bestearen atzetik, UUUU abiatuko dira, atzekoak nahi duena gestu (mueka) desberdinak egingo dizkio aurrekoari, aurrekoak harrapatzen badu rola aldatuko dira.</p> <p>“Zenbakien jolasa”: zenbakien jolasa, hau da, bakoitza libre eta zenbaki bat esaterakoan kopuru horren taldeak egin, baina gainera zerbait adieraziz. Adb: 4 triste, 5 nekatuta, 2 alai</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>“Siamesak”: bikoteka eta espaziotik desplazatuz irakasleak esandako gorputz adar desberdinetatik elkartuta. Ipurdia, belauna, ukondoa. Aldaketa esandakoan bikotez aldatuko dira.</p> <p>“Bikote eroak”: Bikoteka ipinita, irakasleak esandako pertsonaietan bihurtuko dira. Domatzaileak (domatzailea eta lehoia), itxua eta txakurra, medikua eta gaixoa, amona eta laguntzailea, ea.</p> <p>“Etxeko jolasak”: Irakasleak etxeko zerbait gauza adieraziko ditu. Adib: etxe hau jaso egin behar da: hor baloi batzuk daude (boteka binaka...), beste alde horretan kotxe txiki batzuk daude martxan, izkiña batetan txontxongiloak daude...</p> <p>“Port abentura”: Aurreko berdina baina atrakzio parke batean (feria). Orain dantza, montaña rusa, sorginaren trena, sapito loko, autotxoak, ea...</p> <p>“Estatua eroa”: 4 pertsonako taldeak egin zenbakitu (1, 2, 3, 4...). zenbaki bat esan eta horrek estatua egingo du. Beste zenbaki bat egitea aurrekoarengana gerturatu eta zulo guztiak itxiz elkartuko da. Horrela talde osoa elkartu arte. Behin guztiak elkartuta askatu eta txistu soinua entzutean berriro aurrez sotutako figura burutu beharko dute.</p> <p>Vlasky rekin jarraitu.</p> <p>LASAITASUNA:</p> <p>“Boloak”: 5 eko taldeak egin eta boloka jolastuko dugu. Boloak, 4 pertsona izango dira eta jaurtitzaila bostgarrena. Botatzen duenean (baloi imaginarioa) nik emandako zenbakia bat esango du eta kopuru horren bolo eroriko dira. Beraiek ikusiko dute nola.</p> <p>DUTXA</p>	<p>2. zikloa</p> <p>t</p> 

<p>EDUKIN BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIOA</p> <p>UNITATE DIDAKTIKOA: : Irudimenarekin jolasten</p> <p>HELBURUAK: Deshinibizioa, musikarekin jolastu eta gozatu. Keinuz eta mugimenduz komunikatzea.</p> <p>KONPETENTZIAK: 2, 4, 6, 8.</p> <p>MATERIALA:</p>	<p>10. saioa</p>
<p>BEROKETA:</p> <p>“Erritmoa eramatera”: Musika entzuten duten bitartean nahi duten bezala mugitu, erritmoa eramaten saiatuz.</p> <p>“Animalien harrapaketa”: Norbaiten izena eta animalia bat esan, talde osoa animalia hori bihurtuko da eta izena harrapatzailea izango da. Seinalea ematerakoan “haur guztiak” ume bihurtuko dira.</p> <p>ATAL NAGUSIA:</p> <p>Aldez aurretik ensaiatutako dantza guztien emanaldia 1go edo 2. mailakoei.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dantza eroa. - 7 jauzi. - Dantza afrikarra. - Vlasky. <p>LASAITASUNA:</p> <p>Korapiloa. DUTXA</p>	<p>t</p> 